



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

HIRI EREMUKO URBANIZAZIO LANAK (Kanpoko zoladurak barne)

Prestatze-data: 2016

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Dibulgazio-dokumentu hau helburu berbera duen dokumentu multzo baten baitan sartzen da, hots, **ingurumen-alderdiak** erakunde publiko zein pribatuen **erosketa eta kontratazioetan sartzeak** dituen abantailak erraztu eta dibulгатzea helburutzat duen dokumentu multzo baten baitan.


Dokumentu honek modu garbian azaldu nahi du zein diren kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak, ingurumen aldetik arduratsua den erosketa edo kontratazio bat egiterakoan. Kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak berrikustez gain, gogora ekartzen ditu ingurumena errespetatzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa garrantzitsuenak. Bukatzeko, jarraibideak ezartzen ditu erosketa eta kontratazio prozesuaren une bakoitzerako, prozesua arrakastaz amaitu ahal izateko.


KONTRATAZIO ETA EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURU PRAKTIKOA

Eusko Jaurlaritzak berak –Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez-prestatutako laguntza-tresna nagusia da.

Eskuliburu honek erosketa eta kontratazio publiko berdea modu integralean gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia biltzen du, administrazio publikoaren tipologia guztiak kontuan hartuta.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

HIRI EREMUKO URBANIZAZIO LANETARAKO KONTRATAZIO JASANGARRIA

Urbanizazio-lan esaten zaio hiri-eremua hobetzeko edozer ekintzari; hala nola eraispinak, lur-mugimenduak, bideen eraikuntza, seinaleztapena, hiri-tresneria eta abar jorratzen dituzten jardueri.

Alde batetik, urbanizazio-lanak dira tokiko herri-administrazioen aurrekontuko partidarik garrantzitsuenetako bat, bai lizitazioen kopuruaren aldetik, bai bolumen ekonomikoarenetik. Bestalde, ingurumen-inpaktu handiak eragiten dituzte.

Kontratazio eta erosketa berdeak eragin positiboa izan dezake, ingurumen-inpaktua minimizatzen lagun dezakeelako. Horretarako, ingurumen-irizpideak txertatzen ditu urbanizazio-proiektua idazteko fasean (fase nagusian), bai eta obra bera gauzatzean ere.

Jarraian zehaztuko ditugu mota horretako obrak kontratatzekeo lagungarriak izan daitezkeen funtsezko zenbait kontzeptu, kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak eta bestelako datu garrantzitsu batzuk¹.

¹ Irizpide horiek, hiri-eremutik kanpoko obretarako diseinatuta ez egon arren, bestelako obrak egiteko ere erabili ahal izango dira, auzi gehigarri batzuk aintzat hartuta betiere.



ZER JAKIN BEHAR DUGU?

Ingurumen-irizpideak dituen obra proiektu batek eta obra horien exekuzioak berak ingurumenean duten eragina ahalik eta gehien murriztea dute helburu. Auzia xehekiago aztertzeko, hona zerikusia duten zenbait ideia:

Kontzeptu nagusi batzuk

Urbanizazio-lanen zer alderdi dira ingurumen-inpaktu negatiboak eragiten dituztenak?

1. Proiektua idazteko ardura duen laguntza teknikoari dagozkionak, honako hauek direla eta: bulegoaren funtzionamendua, dokumentuen produkzioa eta elkartrukea, eta proiektua diseinatzeko beharrezko joan-etorriak.
2. Harri- eta lur-hondakinen sorrera, eraispenetan eta lur-mugimenduetan.
3. Obrak gauzatzearekin lotutako garbiketa-lanei, argizatze-lanei eta abarri dagozkien ur- eta energia-kontsumoa.
4. Ingurune hurbilari kalteak eragitea, honako hauek direla eta: ibilgailuak edota oinezkoak igarotzeko espazioaren inbasio totala edo partziala, landareen degradazioa edo inguruko garbitasunari eta ordenari negatiboki eragitea.
5. Atmosferara igorritakoak (zaratak, hautsa, konposatu lurrunkorrak, CO₂ eta bestelako errektuntza-gasak) eta isurketak (uraren eta produktu kimikoen kudeaketa desegokiaren ondorioz).
6. Materialen erabilpena haien produkzio- eta fabrikazio-prozesuen arabera.

Zer neurri har daitezke inpaktu horiek minimizatzen?

- Ingurumen-aldagaia urbanizazio-proiektuaren lehen idazketa-fasean erantzen dela ziurtatzea.
- Ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak eta materialak aukeratzea eta erabiltzea, eta jatorri berriztagarrietakoak, birziklatutakoak, birziklagarriak, substantzia toxikorik gabeak... hautatzea.
- Obraren erabilitako praktikek, makinek eta ibilgailuek ingurune hurbilean duten inpaktua minimizatzea (isurketak, zarata eta gas- zein hauts-emisioak sortzen dituztenak, esaterako).
- Ur-, energia- eta erregai-kontsumoak arrazionalizatzea.
- Hondakinen sorrera minimizatzeneko neurriak aplikatzea eta sortutakoak behar bezala kudeatzen direla bermatzea.

Kontzeptu nagusi batzuk

Gai horrekin lotutako INGURUMEN ZIURTAGIRIAK: Zeintzuk dira eta zer bermatzen dute?

- **Proiektua idazteaz eta gauzateaz arduratzen diren arkitektura edo ingeniaritza enpresen ziurtagiriak.**
 - ⇒ Idazteko fasean kontuan har daiteke arkitektura- edo ingeniaritza-enpresen Ekodiseinuko UNE EN-ISO 14006 araua, enpresak proiektu berri guztietan ekodiseinu-irizpideak aplikatzen dituela bermatzen duena (baina ez barne-kudeaketan).
 - ⇒ Obrak gauzatzeko fasean, enpresek ingurumen-kudeaketako sistemaren baten (EMAS; ISO 14001, Ekoscan, edo antzekoren bat...) ziurtagiria edukitzea lehenetsiko da, obrak ingurumeneko jardunbide egokiei eta legediari jarraiki gauzatzen direla bermatzeko.

Ekoscan	EMAS	ISO 14001	UNE EN-ISO 14006

OHARRA: ISO 14001 eta UNE EN-ISO 14006 arauen kasuan, ez dagoenez sistemaren logotipo estandarrik, erakunde ziurtatzaile baten, AENOR kasu, ikurrak erakutsiko dira.

- **Produktuaren ekoetiketa ofizialak.**

Obretan erabiltzeko makinak, ekipamendua, ibilgailuak eta materialak erostean edo kontratatzean kontuan hartu beharreko ekoetiketa ofizial nagusiak honako hauek dira:

Ekoetiketa	Logo ofiziala	Deskribapena
Aingeru Urdina (Alemania)		Makinei eta zenbait material birziklaturi aplikatzen zaie, batez ere. Material bituminosoak, fluido hidraulikoak eta abar ere barne hartzen ditu.
NF-ENVIRONMENT (Frantzia)		Seinaleztapen horizontaleko produktuak.

Kanpo-tresneriaren kasuan, ekodiseinatutako produktuetarako badira UNE EN-ISO

Kontzeptu nagusi batzuk

14006 araupean erregistratutako enpresak. Produktu jakin baten diseinuan ingurumenaren aldagaia kontuan hartu den jakiteko, igorritako ziurtagiriaren eranskinean produktu hori gehitu den egiaztatu beharko da.

Lorezaintzako ibilgailuen eta zerbitzuen kasuan, Ihoberen erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburuko erreferentzia-ziurtagiriak kontsultatu beharko dira –lorezaintzako ibilgailuak eta zerbitzuak–.

- **Zurezko produktuentzako eta birziklatutako materialak dituztenentzako beste ziurtagiri erabilgarri batzuk:**

	Ekoetiketaren logo ofiziala	Deskribapena
Paperezko zein zurezko produktuetarako:		Produktua fabrikatzeko materiala modu jasangarrian kudeatutako baso edo landaredietatik edo material birziklatutik datorrela ziurtatzen dute.
Birziklatutako materialak dituzten produktu guztientzako.		Produktuak duen birziklatutako materialaren ehunekoari buruzko informazioa ematen duten autodeklarazioak.



EROSTEKO ERABAKIA HARTZEN DENETIK HONDAKINAK KUDEATZEN DIREN ARTE

Ingurumen irizpideak aintzat hartuta, obrak kontratatzekeo prozesuan erabakitzekeo eta eragitekeo zenbait une daude: Zein dira? Nola jardun dezakegu jasangarritasunez?

ZEIN DIRA NIRE BENETAKO BEHARRAK?

1. unea Beharrak

Hauxe da erantzun beharrekeo lehen galdera: «Posible da obra-kontratuen kopurua txikituz baliabideen kontsumoa murriztea?»

Horretarako, honako hau erabilgarria izan daiteke:

- Administrazioaren barnekeo enpresa eta sail guztiei eremu edo toki jakin batean egingo diren obrei buruzkeo informazioa helaraztekeo mekanismo bat ezartzea. Horrela, hainbat agentekeo obra berean dituzten eginkizunak hobeki koordinatu ahal izango dira, aldi berean agente kopurua murriztekeo aukera sortuz.
- Zenbait adierazle kalkulaztea, benetakeo beharrak aurreikeustekeo eta egokitzekeo

balioko dutenak. Adibidez:

- ⇒ Kale edo hirigune bateko obren maiztasuna, horiek beste eremuetako obrekin eta agenteekin koordinatuta dauden jakitea ahalbidetzen duen datu-base zentralizatu baten bitartez.
- ⇒ Urbanizazio-lanetako ur- eta elektrizitate-kontsumoak (geroko fase batean hirigintza-kanonak edo -tarifak kontsumoen arabera estandarizatzeko aukerarekin).

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea Kontratazioa

Beharrak zehaztu eta egokitu ostean, ingurunearekin begirunetsua den urbanizazio-lanen kontratazio batek zenbait ingurumen-irizpide izan behar ditu: (1) proiektua idazteko eta gauzatzeko ardura duen enpresaren hautaketan; (2) urbanizazio-lanen oinarritzko proiektuan, proiektu exekutiboan eta/edo obra-zuzendaritzan; eta (3) obraren amaierako gauzatzean.

1. Enpresa edo erredakzio-taldea hautatzeko aintzat hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Proiektua idazteko lehen faserako, eraikuntza-proiektuetan ekodiseinuko neurriak aplikatzeko UNE EN-ISO 14006 araua edo kidekoren bat jarraitzen duten ekodiseinuko kudeaketa-sistema baten ziurtagiria duen enpresaren bat hautatzea gomendatzen da.
Batere aurkitu ezean, kontratuan exijituko da hautatutako enpresak gutxieneko esperientzia egiaztatu behar duela ingurumen aldetik jasangarriak diren eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuen idazketan.
- Lanen gauzatze-faserako, obretarako Ingurumen Kudeaketa Sistema baten ziurtagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzekoren bat) duten enpresek izango dute lehentasuna.

2. Urbanizazio-lanen oinarritzko proiektuaren, proiektu exekutiboaren eta/edo obra-zuzendaritzaren memoriaren idazketa kontratatzeke ingurumen-irizpideak:

- **Lursaila prestatzearekin eta lur-mugimenduekin** zerkusia duten irizpideak:
 - ⇒ Hondakin-sorkuntza minimizatzearekin batera, obrako hondeaketatik zein eraisketetatik sortutako materialak in situ berrerabiltzea maximizatuko da.
 - ⇒ Horretarako, proiektuak azterlan xehatua gehitu beharko du, ondoko hauek barne dituena:
 - Eraisketarako plan bat (proiektuan eragiketa horiek sartzen badira) eraisketa eta berreraikitze selektiboa sustatzeko neurriak dituena.

2. unea Kontratazioa

- Lurzoruaren kutsadura eta kalitate kontrolerako neurriak, berorien balizko berrerabilpena aztertzeko.
 - In situ sortutako eraikuntza- eta eraisketa-hondakinak berrerabiltzearen bitartez balioztatzeke proposamena.
 - In situ berrerabiliko diren kantitateen estimazioa zabortegira eraman beharrekoak minimizatzeke.
 - Beharrezko aurreikuspenak, lur-mugimenduek afektatutako landare-lur edo lur beltz gehien berreskuratzeko, behar bezala biltegitratzeko eta berrerabiltzeko.
- **Berdegunetako eta lorategietarako irizpideak:**
 - ⇒ Irizpide orokor gisa, gunen horien inpaktua haien balio-bizitzaren arabera minimizatuko da. Horretarako, proiektuak ondoko baldintzak bete beharko ditu:
 - Gunearen diseinua funtzioaren, eremuaren baldintzen, begetazio-aroen eta mantentze-lanen arabera justifikatzea.
 - Sarri ureztatzeke eta ureztatze-sistemak instalatzeko beharrik dagoen ala ez justifikatzea. Baiezko kasuan, ureztatze-sistemak hautatutako espezieen ur-beharrei egokituko zaizkie, tenporizadoreak eta higrometroak izango dituzte eta ur-kontsumoak urrutitik kontrolatzeko aukera emango dute.
 - Berdeguneak ahalik eta naturalen agertzea, klimara ohitutako bertako espezieen alde eginez eta denboraldiko loreen erabilera minimizatuz.
 - Landare-espezieak ur- eta ongarritze-beharren arabera kokatu eta multzokatzea.
 - Medeapenik behar izanez gero, Europako Etiketa Ekologikoak medeapenentzat edo landare-substratuentzat zehaztutako osaera-irizpideak beteko dituztela xedatzea.
 - **Hiri-altzarietarako irizpideak:**
 - ⇒ Hiri-altzariak hautatzean, ondokoa hartu beharko da kontuan:
 - Muntatze- eta desmuntatze-lanek obra-hondakinik ez sortzea.
 - Elementuaren eta zoruaren arteko loturan hondakinik ez geratzea.
 - Elementua desmuntatu eta bereizi ahal izatea, hura aldatu behar izatekotan balioztatu ahal izateko.
 - ⇒ Horrez gain, ingurumenaren aldetik hobeak diren hiri-tresneriako elementuak hautatuko dira, honako hau kontuan izanik:
 - Materialen ehuneko jakin batek birziklatutakoa izan behar du.
 - Zuraren ehuneko jakin batek baso-ustiapen jasangarrietatik ekarritakoa izan behar du (FSC, PEFC edo antzeko ziurtagirien arabera).

2. unea Kontratazioa

- UNE EN-ISO 14006 arauaren edo baliokideen motako ekodiseinuko ildo normalizatuen arabera diseinatuak eta fabrikatuak izan behar dute.
 - I. motako ekoetiketa batean ezarritako produktu kimikoen eta isuriaren baldintzak bete beharko dituzte (esaterako, Beltxarga Zuria, Aingeru Urdina, NF-Environment marka edo baliokidea).
- ⇒ Energia kontsumitzen duten hiri-tresneriako elementuen kasuan (seinaleztapen-elementuak, publizitate-markesinak...), energetikoki eraginkorrenak izateagatik edo energia-iturri berriztagarriak erabiltzeagatik CO₂ gutxien isurtzen dutenak hautatuko dira.

- **Eraikuntza-produktu edo -materialei aplikatzeko irizpideak:**

- ⇒ Agregatuak: birziklatutako agregatuak erabiltzea edo ez erabiltzea Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko aginduaren irizpideen eta zehaztapenen arabera justifikatuko da. Arau horrek eraikuntzan eta eraiketan sortutako hondakinen balioztatzean jatorria duten birziklatutako agregatuak erabiltzeko baldintzak xedatzen ditu, betiere materialaren irizpideak betetzen badira kantitateari, kalitateari eta hurbiltasunari dagokienez. Obran bertan in situ berrerabiltzea balioetsiko da.
- ⇒ Zura: legezko iturrietatik ekarria izan beharko du, eta ez CITESen jasorik dauden espezie mehatxatuetoak. Aintzat hartuko da zuraren ehuneko jakin bat era jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik ekarria izatea eta/edo birziklatua izatea (FSC, PEFC edo kideko ziurtagiriren bat duena).
- ⇒ Zoladurak: irizpideak beren hiru eskakizun-mailetan aplikatuko dira:

- Oinarrizko maila:**
- Hondakinen berbalioztatzeetatik datozen materialak dituzten kanpo-zoladurak.
 - Industrializatutako materialen lehentasuna.
 - Metal astunik gabeko zeramikazko zoladurak.
 - Zoladura iragazleak (egokia baldin bada).
 - Hondakinak kudeatzeko azterlana % 50eko balorizazioko/prebentzioko helburuekin.
 - Hondakinen berbalioztatzeetatik datozen materialen %-a.
 - Siderurgiako agregatuen eta EEHen (eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak) erabileraren %-a zoruetan.
 - Industrializatutako materialen %-a.
 - Grabitate edo lotura lehorren bidez instalatutako zoladuren %-a (egokia baldin bada).

- Maila aurreratua:**
- Oinarrizko mailako irizpideak betetzeaz gain:
 - I. motako edo I. erdimotako ekoetiketa-irizpideak betetzen

2. unea Kontratazioa

dituzten zoladuren %-a.

- Bikaintasun maila:**
- Maila aurreratuko irizpideak betetzeaz gain:
 - Hondakinen azterketan % 90eko balorizazioko/prebentzioko helburuak zehaztea.
 - CO₂ isuriak arintzeko gaitasuna duten zoladuren %-a.
 - NOX isuriak arintzeko gaitasuna duten zoladuren %-a.

⇒ Gainerako eraikuntza-produktu eta -materialak (pinturak, asfaltoak, hoditeriak...): ahal izanez gero, I. motako ekoetiketa batean ezarritako produktu eta/edo materialak hautatuko dira; halakorik ezean, birziklatutako materialen ehuneko jakin bat dutenak balioetsiko dira.

- **Oinarrizko proiektuaren memoria teknikoaren edukian** aplikatu daitezkeen irizpideak. Honako hauek jaso behar ditu:

⇒ Araudia eta lege- eta ingurumen-baldintzak kontuan nola hartu diren xehetasunez ematen dituen deskripzio-memoria. (OHARRA: memoriaren adibide bat ikusi nahi izatekotan, Ihoberen webgunean eskuragarri dago hiri-eremuko urbanizazio-lanen xehetasunen fitxa).

⇒ Urbanizazio-obra osoan erabiltzea aurreikusten den materialen eta/edo produktuen zerrenda, bakoitzaren ingurumen-ezaugarriak xehaturik direla, bai eta ingurumen aldetik hobeak diren produktuen kostu gehigarriaren estimazioa ere, ingurumena kontuan hartzen ez dutenekin eta proiektu osoaren kostuarekin alderatuta.

⇒ Ingurumen-kudeaketa plan bat obra gauzatzeko, ingurumenean eragiten duen inpaktua minimizatzeko neurriak jasotzen dituen. Ondorengo hauen gisako neurriak:

- Obrako hondakinen inbentarioa egitea eta horiek egokiro kudeatzeko, gaika biltzeko eta/edo kontrolpean kudeatzeko neurriak zehaztea.
- Ur-, energia- eta erregai-kontsumoak kontrolatzea eta arrazionalizatzea.
- Atmosferara isuritako hautsa, CO₂-a eta ibilgailuen eta makinaren errekuntzako bestelako gasak, usainak, argi-kutsadura eta abar minimizatzea.
- Makinek, zamalanek eta abarrek sortutako zaratak murriztea.
- Landaredia babestea eta isurketak minimizatzea: kolpeen aurkako babesa eta segurtasun-distantzien ezarpena zangak egiteko orduan, landaredi-elementuak aldi baterako birlandatzeko edo kentzeko eta abar.
- Mugikortasun-neurriak inguru hurbilean eta obran bertan eragozpenak murrizteko: informazioa, seinaleztatzea, bideen planifikazioa...
- Kaltetuei zuzendutako informazio- eta komunikazio-ekintzak.

2. unea Kontratazioa

- Langileentzako ingurumenaren inguruko prestakuntza espezifikoa.

Plan hau obra gauzatzeko plegu teknikoan jasoko da eta obraz arduratuko den eraikuntza-enpresak garatu beharko duen ingurumen-kudeaketako programa espezifikoaren oinarri izango da.

- **Obran sortzen den dokumentazioari** aplika dakizkiokeen irizpideak:

- ⇒ Lanak, txostenak eta materialak DIN A4 neurriko, % 100 birziklatutako eta bi aldeetatik inprimatutako orrietan aurkeztu beharko dira.
- ⇒ Formatu elektronikoa daudenak itxi gabeko CD birgrabagarri batean edo antzekoan aurkeztu beharko dira, berriro erabiltze aldera.

3. Urbanizazio-lanen gauzatzea kontratatze ingurumen-irizpideak:

- **Gauzatze-proiektuaren memoria teknikoaren edukian aplikatu daitezkeen irizpideak. Honako hauek jaso behar ditu:**

- ⇒ Ingurumen-kudeaketako plan bat ², lan-plangintzan integratua eta obrak gauzatzeagatik eragindako inpaktuak minimizatze ezarriko diren neurriak egutegi batean zehazten dituen. Ondorengo hauen gisako neurriak:

- Hondakinak modu zuzenean eta gaika kudeatzea (bizigabeak, baliagarriak eta bereziak), haiek berrerabiltze eta kontrolpean kudeatze aldera.
- Uraren, energiaren eta erregaien kontsumo eta kontrol arrazionala.
- Atmosferara isuritakoak minimizatzea (hautsa, CO₂ eta ibilgailuen eta makinaren errekuntzako bestelako gasak, usainak, argi-kutsadura eta abar).
- Zaratak murriztea (indusketa-operazioetakoak, makina astunek eta obretako makina txikiak eragindakoak, zamalanetakoak, eta abar).
- Lurzorua, landaredia eta paisaia babestea eta isurketak minimizatzea.
- Mugikortasun-neurriak ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko inguru hurbilean eta obran bertan.
- Kaltetuei zuzendutako komunikazio- eta informazio-ekintzak.
- Langileentzako prestakuntza espezifikoa, aipatutako alderdiak kontuan har ditzaten.

Ingurumenari dagokionez, gainera, obraren jarraipena eta kontrola bermatuko da, ondoko neurrien bitartez:

- Gutxienez honako hauek kontrolatzeko eta erregistratzeko neurriak: ur- eta

² Ingurumen-kudeaketako plana proiektua idazten duen lan-taldeak gauzatu ohi du; ingurumen-kudeaketako programa, berriz, obrak gauzaten dituen enpresak idatzi ohi du. Programa ingurumen-kudeaketako planean oinarrituta egon daiteke, bigarren hori garatu bada eta obran gauzatzearen kontratazio-pleguan jasota badago.

2. unea Kontratazioa

elektrizitate-kontsumoak eta hondakinen sorrera.

- Egiaztapen-zerrendak edo «checklist» direlakoak honako hauek ikuskatzeko eta egiaztatzeko: ingurumen-kudeaketako programaren ingurumen-irizpideen betetzea eta produktuen ingurumen-kalitatea obrak bisitatzen direnean.
- **Eraikuntza-produktu edo -materialei** aplikatzeko irizpideak:
 - ⇒ Obran erabili beharreko materialei dagokienez, ingurumenaren aldetik egindako hobekuntzak baloratuko dira, proiektuan adierazitakoaren arabera. Honako hauen tankerako hobekuntzak: baso-ustiapen jasangarrietatik datorren zura, birziklatutako materialen ehuneko handia duten produktuak...
- **Obraren gauzatzearekin** zerikusia duten irizpideak:
 - ⇒ Proiektu exekutiboan eta eskaintzan bertan zehaztutako ingurumen-ezaugarriak dituzten materialak erabiltzen direla egiaztatu beharko da, dagozkien erosketa-zurtagiriak eta bermeak aurkeztuta.
 - ⇒ Obraren gauzatze-fasean jasotako ingurumen-adierazleen laburpen-txostenak eskatu ahal izango dira: ur- eta elektrizitate-kontsumoa eta hondakinen zati bakoitzaren sorrera eta norakoa.

Azaldutako irizpide guztietatik, kontratazioan garrantzitsuenak eskatu edo balioetsiko ditugu; betiere, obraren arabera.

Obrak prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi dituzten administrazioen kasuan, Ihobek argitaratutako kontratazio eta erosketa publiko berdearen eskuliburu praktikoan daude pleguan txertatu beharreko irizpideak (bi eskakizun-mailatarako: oinarritzkoa eta aurreratua), Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari jarraiki.

Bestalde, obrak Administrazioko langileek gauzatuko balituzte eta erositako bakarra horretarako materialak eta produktuak balira, errekerimendu teknikoak betetzen dituzten ekoetiketatutako materialak eta produktuak hautatzea litzateke errazena.

NOLA KUDEATU SORTUTAKO HONDAKINAK?

3. unea: Sortutako hondakinen kudeaketa

Minimizazio-neurriak aplikatzen badira ere, obra batean beti sortuko dira hondakinak, bai hiri-hondakinen antzekoak –papera/kartoia, ontziak, eta abar–, bai hondakin geldoak –kutsatutako lurrak eta agregatuak, pintura-geldikinak, disolbatzaileak, eta abar–.

Hondakin horiek mota askotakoak direnez eta arriskugarritasun-maila ezberdina dutenez,

3. unea: Sortutako hondakinen kudeaketa

obraren ingurumen-kudeaketa planak honako hauek bermatzeko prozedurak, neurriak eta baliabideak aurreikusi beharko ditu::

- Hondakinak gaika biltzea;
- Obran bertan berriro erabiltzea;
- Berriz baliatu ezin daitezkeenean, baimendutako arduradunen bitartez kudeatzea.



INFORMAZIO GEHIAGO

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (aholkularitza-zerbitzuari buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.